

OSOGUNEKO ERAKASKERA
1998-99ko IKASURTEA.

ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

- 1 - Eskualdunak Egiptoratu jasan aitzin zer egin zuten?
- 2 - Nandik aitzin eta iragan zer egin behar.
- 3 - Bidea erreka edo nekharra zen?

(I) ESKUALDUNAK EGYPTOAN 1
(Eguerriko Kondaira)

Eguerri arratsa zen. Haurrak oro aldean eman zitzaizkon, eta huna nola hasi zitzaizoten Aitaxo!

-Duela aspaldi, aspaldi, iguzki-aldetik ethorri zen berri handi bat, eta laster hedatu Eskual mendietan: Mesias, orok igurikatzen zuten Salbatzailea sortu zela han, Betelemeden, Jerusalemeko ondoan. Nondik jina berri hori? Xuxen, nehork ez zakien. Nehork ezagutzen ez zituen gizon eder batzu mendiz mendi ibili ziren, mezu horrekin; aingeru zonbeit, segur! Gero! gau eder batez, bethi iguzki aldean, zeru guzia argitzen zuela, izar bat xoragarria agertu zen...

Haro² bat gaitza altxatu zen Eskual-herrian. Gernikan, Uzta-ritzen biltzarrak egin ziren, eta egun batez, gure arbaso Kantabreek, hor, gogoan hartzen dute: "Eskualdunen izenean, behar norbeit igorri Mesias-Haurraren ganat."

Eta erran bezala egin ere zen. Moltsa luzea koka-ahala diruz hanpaturik, jatekoz alfotxak, etxe-arnoz xahakoak leher-tzeko heinean betherik, bideari lothu ziren Eskual-herriko zazpi etxeko jaunik hoberenak.

Bide luzea, izigarria zuten egiteko. Baina, biderik izigarienak egundaino izitu othe ditu Eskualdunak? Eta gero, Salbatzailearen ganat zoazin...

Joan ziren beraz, mendieri gora, ibai handier beheara, Espainian barna. Bide txar, handi, eder, itsusi, oro luzatuz zoazin heien giblean. Eta, hala ere, puskaraz gehiago gelditzen aintzinean!

Espainiako azken azken mugatik, untziz iragan ziren Afrika beltzera, eta, gero, bidean ez errebelatzeko, leihorrez leihor joan, iguzkiari buruz bethi.

Joan, joan, bethi joan, baina sekulan ez heltzen! Gose eta egarri onik jasan zuten bortu izigarri hetan. Baina orduan, Eskual-Herriko kantu-xarameletan hasten ziren, eta xaramela heien entzuteko, gose gaixtoenaren kurrinka ixiltzen omen zitzaizoten sabelean. Moro-beltz, ohoin, basa-ihizi mota guziak maiz ondotik zituzten, arranoak arthaldearen ondotik bezala, inguruka... Baina, orduan, zazpiak irrintzinaka hasten ziren eta... kuku lehoinak, ohoinak eta Moroak: sekulakotz harriturik, oro beren ziloetaratu itzultzen zirent. Eta bakhar zonbeit, fortunaz, soberaxko hurbiltzen bazitzaizoten, makila eskualdunak xixtu zuten gure etxeko-jaunen ahurrean.

33-JOAN - Indicatif - Don bien

PRESENT		IMPARFAIT	
Ni	noa = je vais	N.	nindoan = j'allais
Hi	hoa = tu vas	H.	hindoan = tu allais
Zu	zoatzi = vs allez	Z.	zinoatziin = vs alliez
Hura	doa = il va	H.	zoan = il allait
Gu	goatzi = us allons	G.	ginoatziin = ns allions
Zuek	zoazte = vs allez	Z.	zinoazten = vs alliez
Hek	doatzi = ils vont	H.	zoatziin = ils allaient

(II) ADITZ IKASKUNTZA

31. eman zitzaizkon 32. ez zakien
33. orozatuz zoazin 33. bazitzaizoten.

31. IZAN. Régime indirect - Indicatif Imparfait

Pluriel	Hek ziren = ils étaient
Hek (eux) zitzaizkitan (à moi) = ils m'étaient	
" zitzaizkitzun (à vous) = ils vous étaient	
" zitzaizkiton (à lui) = ils lui étaient	
" zitzaizkitun (à nous) = ils nous étaient	
" zitzaizkituen (à vous) = ils vous étaient	
" zitzaizkitien (à eux) = ils leur étaient	

Gu ginen = nous étions

Gu (nous) gintzaizkitzun (à vous) = nous vous étions
gintzaizkiton (à lui) = nous lui étions
gintzaizkituen (à vous) = nous vous étions
gintzaizkitien (à eux) = nous leur étions.

32. JAKIN Indicatif.

Présent	Objet singulier	Imparfait
Nik dakit = je le sais	N	nakien = je le savais
Hik dakik/m = tu le sais	H	hakien = tu le savais
Zuk dakizu = vs le savez	Z	zinakien = vs le saviez
Harek daki = il le sait	H	zakien = il le savait
Guak dakigu = ns le savons	G	ginakien = ns le savions
Zuek dakizue = vs le savez	Z	zinakiten = vs le saviez
Heiek dakite = ils le savent	H	zakiten = ils le savaient